

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRIGINTZA SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Hasierako onespina ematea Gasteizko Karta plazako 13.a irisgarri egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak orotariko tasazio bidez desjabetzeko proiektuari

Hauxe erabaki zuen Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko otsailaren 15ean egindako ohiko bilkuran:

1. Hasierako onespina ematea Gasteizko Karta plazako 13.a irisgarri egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak orotariko tasazio bidez desjabetzeko proiektuari. Interesdunek administrazio-dosierrean dute eskuragarri proiektua.

2. Karta plazako 13.eko etxejabeen elkarte aitortzea desjabetze honen onuradun.

3. Delako proiektua informazio publikora ateratzea, hilabeteko eperako, ALHAOn, iragarki taulan eta zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, interesaturik dagoen orok egokitzen dituen ohar eta erreklamazioak aurkezterik izan dezan.

4. Halaber, balioa zehazteko orriaren eta kalte-ordain orriaren berri hitzez hitz ematea dosierrean ondasun edo eskubideen titular gisa agertzen direnei, banan-banan, eta onuraduntzat jotzen den erakundeari, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean alegazioak aurkezterik izan dezaten.

5. Hirigintza Saileko zinegotzi ordezkariari ahalmena ematea Udalaren izenean eta haren ordezkari beharrezko diren agiri publiko zein pribatuak izenpe ditzan.

Dosierra Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25—, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko otsailaren 18an

Alkate lehendakaria

GORKA URTARAN AGIRRE

Nahitaez desjabetu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda

Nahitaezko desjabetzearen inguruko legedian eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean ezarritakoaren ildotik egin da zerrenda, zeinak Karta plazako 13.a irisgarri egiteko okupatu beharrezkotzat jotzen diren ondasun eta eskubideak biltzen baititu, bai eta haien titularren izenak ere.

FUN TSA	KATASTRO ERREFERENTZIA	AZALERA, GAUR EGUN	ERAGINA	TITULARRAK
Behea, ezker (B-05 lokala)	5958070200020025HR (59-1751-596-03-02-25)	80,25 metro koadro	5,48 metro koadro 8,87 metro kubiko	Manuel Amboage Vázquez jauna